

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN BIDAIA POLTSETARAKO DEIALDIA 2010. URTERAKO

346/2010 Ebazpenaren eranskina

Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikerketa bultzatu eta sustatzeko politikaren barruan, beharrezkotzat jo da informazioaren trukaketa eta ezagupen zientifikoen hedapena sustatzea, izaera zientifikoko biltzarretan eta sinposioetan parte hartzea lagunduz. Azken urteotan, helburu hori bidaia poltsetarako deialdien bidez gauzatu da eta NUPeko ikertzaileei aukera eman diete, urtean behin biltzar edo bilera zientifiko batera gutxienez joateko, beren ponentziak onartzen bazaizkie.

Hala ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikerketa politikaren beraren bilakaerak, ikerketa talde entzutetsuen finantziabide egonkorrera eta horien etengabeko ebaluaziora bideratutakoak, Bidaia Poltsetarako deialdia aldatzea ekarri zuen 2009ko edizioan, Ikerketa Taldeen kudeaketarako eta erabakirako gaitasunaren esku utziz beren kideak biltzarretara joateko gastuetarako Unibertsitatetik jasotzen dituzten funtsak erabiltzea.

Hala ere, Ikerketa Batzordeak bidezkoa ikusten du Bidaia Poltsetarako Deialdi bat mantentzea, bestelako finantzabiderik ez duten biltzarretan parte hartzeko, edo prestakuntza helburuetarako, esaterako, prestakuntza egoeran dauden irakasle laguntzaileentzako. Beraz, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Bidaia Poltsetarako Deialdia 2010. urterako, honako oinarri hauek arautuko dute:

1.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da ikerketa jarduera sustatu eta bultzatzea, bereziki, prestakuntza egoeran dauden irakasleena, nazioan zein nazioartean izaera zientifikoko biltzarretan edo sinposioetan parte hartzeak sorraraz ditzakeen gastuak finantzatzen lagunduz, esaterako, izena eman eta bertaratzeko, eta hitzaldiak, komunikazioak, horma-irudiak edo bestelako ekarpenak aurkezteko.

2.- NORENTZAT

Bidaia Poltsa hauek honako hauentzako dira:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoan lanaldi osoz aritzen diren irakasleak, deialdia ixteko egunean Nafarroako Unibertsitate Publikoan zerbitzu aktiboan jarduten dutenak eta ikerketa talde batean erroldatuak egonik, talde hori 2010eko Sustapen Planetik baztertua izan bada.
- Unibertsitate irakaskidegoetako irakasleak, arduraldi ez-osoan aritzen direnak eta Osasun Zientzien Sailari atxikitakoak, aurreko baldintza berberetan.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle laguntzaileak, ikerketa talde batean erroldatuak daudenak deialdia ixteko egunean.

3.- BIDAIA POLTSEN XEDE DIREN JARDUERAK

Bidaia poltsak 2010ean egin beharreko jardueretarako izango dira: biltzar edo sinposioetara joateko gonbidatu gisa edo ikerketa jardueraren emaitzei buruzko ponentziak, komunikazioak, horma-irudiak edo bestelako ekarpenak egiteko.

4.- IRIZPIDEAK ETA BATERAEZINTASUNAK

1. Laguntza hau jasotzea bateraezina izango da Unibertsitatetik jarduera berberarako kudeatzen diren beste bakarkako laguntzekin.
2. Laguntza hau jasotzea bateragarria izango da ikerketa taldeen edo proiektuen bestelako laguntzekin, laguntza guztien batura jardueraren gastu osoa baino handiagoa ez bada, betiere.
3. Bidaia poltsa bakarra emango da urteko eta ikertzaileko.
4. Eskatzaileak garatu beharreko jarduerak zuzenean lotuta egon beharko dira berezitasun zientifikoarekin eta ikerketa lerroekin.
5. Poltsa bakarra eman ahalko da aurkezten den ekarpen zientifiko bakoitzeko.

5.- AURREKONTUAREN ZENBATEKOA ETA MUGAK

Eman beharreko poltsa kopurua eta beren zenbatekoa garaian garaiko aurrekontuak ezarritako mugak izango ditu. 2010eko gastuen aurrekontuan deialdi honetarako ezarritako gehienezko diru kopurua 40.000 euro da, 31.3000.482.07 *Laguntzak Biltzarretarako eta Bidaia Poltsetarako* izeneko kontusailaren kargura.

Poltsa bakoitzaren gehienezko zenbatekoa, honako hau izango da:

- 5.1. Espainian egiten diren jardueretarako, 680 euro arte eman ahalko dira.
- 5.2. Europako gainerako herrialdeetan egiten diren jardueretarako, 1.200 euro arte eman ahalko dira.
- 5.3. Europatik kanpo egiten diren jardueretarako, 1.550 euro arte eman ahalko dira.

6.- ESKABIDEEN AURKEZPENA ETA AGIRIAK

1. Eskabideak aurkezteko epe bakarra egongo da, eta 2010eko ekainaren 11n bukatuko da.
2. Eskabideak Unibertsitateko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, horretarako ezartzen den inprimakian eta honako agiri hauekin batera:
 - Garatu beharreko jardueraren oroitidazkia, gehienez ere folio batekoa.
 - Aurreikusten den aurrekontu xehakatua.
 - Ekarpen zientifikoa, gonbita edo parte-hartzeko agiria, onartu zaiola frogatzen duen agiria. Eskabidea aurkezteko unean, oraindik ez badu ekarpen zientifikoa edo gonbita onartzen dela frogatzen duen agiria, Poltsaren behin betiko onespena, Ikerketa Zerbitzuan agiria aurkeztearekin baldintzatuko da.
 - Eranstea egokitzat hartzen den beste edozein agiri, betiere deialdiaren oinarriekin bat.

7.- AURKEZTUTAKO ESKABIDEEN ESLEIPENA ETA EBAZPENA

Eskabideen izapidea eta ebazpena, honakoaldi hauekin bat egin beharko da:

1. 2010eko uztailaren 31 baino lehen, Ikerketa Batzordeak proposatuta, Unibertsitateko errektorearen ebazpenaren bidez, laguntzen onuradunen zerrenda onetsiko da, deialdian ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskatzaileen artetik. Laguntza behin-behinean ematea erabaki ahalko da, betekizunak frogatzearekin baldintzatuta. Ebazpen berean laguntzen ordainketa egiteko baimena emango da aurrerakin gisa.
2. Ikerketa Zerbitzutik interesdunei jakinaraziko zaie laguntza eman zaiela, ebazpena ematen denetik bi hilabeteko epean, gehienez ere. Aurrerakinaren ordainketa Kontabilitate Atalak egingo du banku transferentziaren bidez, laguntza eman delako ebazpena igortzen denetik hurrengo hamabost eguneko epean.
3. Aurkeztutako eskabideak behin betiko ebatzi ondoren, aurrekontuan oraindik dirua badago, eskabideak aurkezteko epea zabaldu ahalko da, Ikerketa Batzordeak erabakia hartuta. Emateko ebazpen berean azalduko da zabaltzen dela. Ikerketa zerbitzuak ahalik eta hedapen handiena emango dio eskabideak aurkezteko epea zabaltzen delako berriari.

8.- BIDAIA POLTSEN ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1. Poltsa jasotzen duenak, parte hartzen duenean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kidea dela azaldu beharko du.
2. Laguntzen onuradunek, irailaren 30a baino lehen, Ikerketa Zerbitzuan aurkeztu beharko dituzte egindako jarduera ziurtatzen duen agiria eta emandako laguntza osoaren gastuen justifikazioa (jatorrizko ordainagiriak). Esleipenaren ondoren egiten denean bidaia, gastuen justifikazioa aurkeztu beharko da bidaia egin eta hurrengo hilabetearen lehen hamabostaldian, betiere Unibertsitateak 2010. urterako aurrekontua betetzeko arauetan adierazten duen mugaeguna baino lehen.
3. Laguntzaren onuraduna zerbitzu aktiboan aritu beharko da jarduera egiten den unean.
4. Ordainagiri guztiak Ikerketa Zerbitzuan aurkeztuko dira, Unibertsitateko araudiarekin bat, eta laguntza ematen dela jakinarazten denean adierazitako inprimakiak erabilita.
5. Justifikaturiko gastuak kontuan ordaindutako zenbatekoa baino txikiagoak badira, onuradunek justifikatu gabeko kopurua itzuli beharko dute, behin betiko esleipena egiten denetik, gehienez ere bi hilabeteko epean.
6. Lagundu den jarduera ez bada burutzen, eta onuradunak ordurako ordainketa jaso badu, Bidaia Poltsa itzuli beharko du 2010eko abenduaren 31 baino lehen.
7. Deialdi hau zuzentzen duten arauak ez betetzeak edo poltsa eman zen helburuaz beste baterako erabiltzeak ondorio gisa ekarriko dute emandako zenbatekoa itzuli

beharra, bidezko izan litezkeen erantzukizunak galarazi gabe.

8. Bidaia Poltsa onartzeak berarekin dakar deialdi hau zuzentzen duten arauak onartzea.
9. Bidaia Poltsa emateak ez du berez ematen onuradunak lehendik zituen betebeharrak ez joateko baimena. Baimen hori bere aldetik eta ohiko bideetatik eskatu behar da.

9.- ARGITARATZEA

Deialdi honetan azaltzen diren oinarriak Unibertsitatearen komunikabide elektronikoen bidez hedatuko dira. Ikerketarako Errektoreordetza arduratuko da zabalkunde handiena emateaz.

10.- ERREKURTSOAK

Ebazpen honen eta deialdi honetako oinarrien aurka, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke errektorearen aurrean hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako administrazioarekiko Auzietako Epaitegian bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.